

5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Online sustapena estrategia garrantzitsua izango da gure kargadorearen zabalkundean, produktua sare sozialetan eta webgune espezializatuetai promozionatuz. Hori dela eta, bizikleta eta teknologia jasangarriari buruzko plataformetan eta komunitateetan aktiboak izango gara, non erabiltzaileek ingurumenarekiko sentsibilitatea eta berrikuntza baloratzen dituzten. Facebook, Instagram eta Twitter bezalako sare sozialen bidez, ikus-entzunezko eduki erakargarriak eta infografiak partekatuko ditugu, baita blogetan eta forotan artikulatuak eta errepasoak argitaratuko ditugu, bezero potentzialen arreta erakartzeko eta produktua ezagutzera emateko. Horrela, gure produktua modu zuzenean eta eraginkorrean helaraziko diegu interesatuta egon daitezkeen erabiltzaileei.

Bizikleta-denda eta azokak izango dira gure kargadorearen sustapenerako gune estrategikoak. Hiri mugikortasunaren eta bizikleta zaleen artean eragina izateko, dendetan eta ekitaldietan (hala nola, bizikleta azoketan) aurkeztuko dugu produktua, non erabiltzaileek zuzenean esperimendu ahal izango duten kargadorearen abantailak. Denda fisikoetan erakusketak eta demoak antolatuko ditugu, bezeroei produktua lehen eskutik erakusteko eta haien zalantzak argitzeko. Era berean, azoketan eta ekitaldi espezializatuetai parte hartuko dugu, non produktua zuzenean sustatu eta bezero potentzialen artean harreman zuzena ezarri ahal izango dugun, marketin zuzena eta partaidetza sustatuz.